

Baiña nire oroimenak gozo dirau oraindik neurre aur-eskuetan euki nebazan len-jazmin zuri areikaz.

Zenbat egun alaikor nire bizian ! Nik bai barre zori ontsuakaz, jai-gauetan ! Zenbat kanta abestu dodan astiro, euritan, goiz arrez ! Eta bakulazko illunabar sortak apaindu daust samea, maitezko eskuz eundua...

Baiña nire biotza usaintsu dago oindiño, nire aur-eskuak bete ebezan len-jazmin eze areikaz.

Jazmin oneik, ai, jazmin zuri oneik !

35

PIKONDOA

Esaidazu, urmael ondoan zutik dirauzun pikondo soil-uldua, zure adarretan abi egin eben txoriak itxi ta aztu zaituen lez, zu be umeagaz aztu ete zara onezkero ? Gaur ez zara gogoratzen, bear bada, zelan jarten zan leioan, lurrari oratzen dautsoen zure suster orrein naspillak sor ta lor eukalarik ?

Emakumak urmaelera etozan euren usulak, erradak urez betetera, ta zure geriza luze baltza uretan biurtzen zan, loak itxartu nairik burruka dagian lez. Olatu pitiñetan dantzatzen zan eguzkiaren argia, anezka txiki urduriakaz urrezko miesa bat euntzen ba'liardue. Ertzez-ertz, bedar zut artean, aate bik uger egien euren itzal gain...

Eta umea jarrita egoan, geldi ta gogoz galdua... Aize izan nai eban, zure adar ulukarien artetik ibilteko ; zure geriza izan nai eban, eta egunaz ur gaiñean luzatu ; eta ibilli ara ta ona, aaten antzera, bedar ta itzal artean.

36

ONESPEN

Onets egizu gorpuztxo au, zeru-mosua lurrari irabazi dautson gogo zuri au ; eguzki-argia maite izanik, bere amaren arpegiko zorapenez lillurazten dana ; autsa ezetsi ta urrea nai izatea oindinõ ikasi ez dauana. Ar egizu biotz ondora, ta onetsi !

Eun bide-kurutze ditun mundu onetara etorri zan, eta ez dakit zelan aukeratu zinduzan zu aibat lagunen artean, zergaitik dei egin eban zure atean, zuri eskutik oraturik bideaz itauntzeko. Irri-barreka ondoren doakizu, ta bere biotzean itz dagiala ezeren ezpai bage. Jagon aren fedea zeuregan, artez zuzendu ta onets egizu.

Jarri zure eskua aren buru gain, eta eskatu, aren oiñetan olatuak asarrekor orru eginda be, zeru-aize biguna datorrela aren oialak puztutera, ta sakatu dagioela bakezko porturantz. Ez egizu aztu zeure arin eta estu-aldietan, itxi egiozu biotze-raiño urreratzen eta onetsi egizu.